

## ZOOA

### 1.- Deskribapena

Haur bakoitzak bere bikotekidea aurkitu behar du hots jakin bat eginez.

### 2.- Helburuak

- Bikotekideak elkarlanean aritzea, lehenbailehen elkar aurkitzeko.
- Sentsibiltatea eta entzutea indartzea.

### 3.- Partaideak

Talde bat, 6 urtetik aurrerakoa.

### 4.- Materiala

Animalien izenak azaltzen diren paperak (animalia bakoitzeko bi).

### 5.- Abiapuntuko arauak

Jolasa ilunpetan egin behar da, eta jokalaria bakoitzak egokitu zaion animalia hotsa imitatu behar du.

### 6.- Garapena

Haur bakoitzari animalia baten izena idatzita daraman paper bana emango zaio, eta bere bikotekidea aurkitu beharko du, animalia horren hotsa eginez.

### 7.- Ebaluazioa

Nola sentitu zarete? Zaila izan al da zuen bikotekidea aurkitzea? Nola sentitu zarete bikotekidea aurkitzerakoan? Jostagarria izan al da? Haur txikienean kasuan, ez dira bikoteka jarri behar, baizik eta taldeka, jolasa azkarragoa bihurtzeko eta haurrik bakarrik gera ez dadin.

### 8.- Iturria

Cascón, Paco. *La alternativa al juego I*. Ed:Catarata. 1995.